

Bizikleta gainean inoiz baino gusturago

Anaiaren bidea jarraituz hasi zuen txirrindularitzako ibilbidea Amaia Leonek

Amaia Leon Etxaburu



Amaia Leon Etxaburuk (Ondarroa, 1997) txikitatik ezagutu izan du txirrindularitza. Anaiaren lasterketak ikustera joaten zen sarritan, eta hortik piztu zitzaion grina. 10 urterekin hasi zen Aurrera Txirrindulari taldean, 2007an, eta 14 urterekin Durangoko "Ciclos Iturriaga" taldera joan zen. Kadete mailan ez baitzegoen emakumezkoen talderik Ondarroan. 2013an lurretako CAF Transport Engineering taldean egon zen eta 2014an Durangoko Txirrindulari Elkarteko Beste Alde-Orue eskolan.



Selektibitate garaian, ezin izan zituen ikasketen eta lehiaketaren erritmoa uzartu, beraz, lehiaketa albo batera utzi eta urtebete bizikleta hartu gabe egon zen. Hori izan zen bizi izan zuen lehenengo krisia. Ez zen momentu erraza izan Leonentzat, presio handia zeukan ikasketei zegokienez, Fisioterapiako Graduan sartzea zen bere ametsa, eta selektibitatea atarian, horretara jarri zen buru-belarri. Bere buruari jarritako presio horrek ondorioak ekarri zizkion psikologikoki.

2016an berrartu zuen bizikleta, gehiago gozatzeko eta bizikletarekin zeukan harremana osatu eta estutzeko helburuarekin. Berrito kirolarekin kontaktuan jartzeko gogoarekin hasi zen eta aurretiaz bizitakoa ahazteko beharra zeukan.

2017an Ondarroako Koaxi Triatloi Taldean sartu zen, anaiak bultzatuta, bere ibilbidea jarraitu baitu txikitatik. Beraz, Triatloi mundura hurbiltzen hasi zenean probatzeko gogo sartu zitzaion eta bide batez, korrika eta igerian trebatzeko aukera luzatu zion bide horrek. Berrito kirolaz gozaten hasi zen eta 2016ko iraileko Zarauzko triatloia egitea izan zen bere buruari jarri zion helburua. Hori lortu zuenean sartu zen herriko triatloi taldean, jarraipena emateko asmoz.

Hurrengo urteko triatloi denboraldia prestatzen zegoela, belauna kaltetu zitzaion eta bigarren krisi bat izan zuen bere kirol-ibilbidean. Ez zen garai ona izan txirindulariarentzat, momentu horretan bizikletan gustura zebilen eta gogotsu zegoen baina momentu batetik bestera apurtu zitzaizkion espektatiba guztiak eta mediku batetik bestea ibili zen. Lehiaketak alde batera uztea ez zen erabaki erraza izan, denboran zebilen zalantza horrekin buruan baina ez zeukan argi, bizikletan gauza asko eman baitio bizitzan. Baina lesioa jasan zuenean, ez zuen aukeratzeko astirik izan, eta horrek gogor jo zion psikologikoki.

Hirugarren krisi bat ere izan du oraintsu, bizikletan eroriko bat izan eta bigarrenez hautsi zuen klabikula. Berrito baieztatu du, bizitzan jarritako espektatiba horiek segundo batean ezabatu daitezkeela eta hori kudeatzea ez zaio erraza egin. Katalunian bizikletan zebilela apurtu zuen berrito klabikula eta buruan ere kolpe bat hartu zuen. Orain arte izan duen krisietan, hirugarren hau bereziki nabarmendu du, psikologikoki soilik ez, fisikoki ere min handiak izan baititu. Medikuz mediku ibili zen baina diagnostiko argirik gabe eta horrek frustrazio handia eragiteaz gain, bere lesioa denboran luzatzea eragin zuen. Apurka-apurka badabil krisi horretatik atera eta bizikletaz berrito gozaten, inguruko laguntzarekin.

“Inork ez digu horrelako krisiak gestionatzen erakutsi. Osasun mentalari ez diogu benetan duen garrantzia ematen.

Gaur egun, Gasteizen bizi da eta Donostiako Deustuko Unibertsitatean Fisioterapiako Gradua ikasten dabil. Betidanik izan du Fisioterapia ikasteko ametsa eta nahiz eta gazteago zela selektibitateko notagatik aukera hori galdu, orain dela hiru urte momentua ikusi zuen bere ametsa berrartu eta buruan zituen ikasketei ekiteko.

Betidanik izan da bizikleta bere kirola eta bere horretan jarraitzen du gaur egun ere. Lehiaketa eta lasterketen presioa albo batera utzi eta gozatzeko helburuarekin jarraitzen du, gainera, inoiz baino gehiago dabil bizikletaz disfrutatzen. Gasteiz inguruan ibiltzen da bizikletarekin eta bertako emakume txirindulariekin batera irteten da errepidera. Gustuko duena eginez jende desberdina ezagutzeak motibazio gehigarri bat eman dio.

